

IZENORDAINAK.JARDUERAK

1. Berridatzi esaldi hauek, nabarmendutako izenen ordeztu pertsona-izenordainak jarri.

♦ Txango bat egingo dut **zurekin eta zure lagunarekin**:

Txango bat egingo dut.....

♦ **Aita eta ama** Erroman egon ziren oportetan.

.....Erroman egon ziren oportetan.

♦ **Mireiak** lagundu digulako lortu dugu lana bukatzea.

.....lagundu digulako lortu dugu lana bukatzea.

♦ **Zuk eta nik** badakigu zer gertatuko den oparia jasotzen duenean.

.....badakigu zer gertatuko den oparia jasotzen duenean.

♦ **Zure anaiak eta zuk** dena kontatzen diozue elkarri.

.....dena kontatzen diozue elkarri.

♦ **Peruk** irakurri du Mariasun Landaren azkenengo liburua.

.....irakurri du Mariasun Landaren azkenengo liburua.

♦ Udan **gurasoak eta ni** mendira joango gara.

Udan.....mendira joango gara.

2. Irakurri esaldi hauek eta aztertu zer informazio (pertsona eta numeroa) ematen duten pertsona-izenordainei buruz.

3. pertsona/plurala

2. pertsona/plurala

2. pertsona, singularra

1. pertsona, singularra

-Haiek baserrian bizi dira.....

-Zuek ez duzue antzerkiko gidoia ikasi.....

-Nik ez dizut txisterik kontatuko.....

-Zu goizero oinez etortzen zara eskolara.....